


Eraikuntza-kostuek, Euskal AEn, % 0,4 egin dute gora 2022ko urrian

Urte arteko terminoetan, 2022ko urrian, 2021eko urriaren aldean, kostuek % 9,9 egin dute gora

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizeak % 0,4 egin du gora 2022ko urrian, aurreko hilarekin alderatuta, Eustatek emandako datuen arabera. Aurreko urteko hil berarekin alderatuta, kostuek % 9,9 egin dute gora.

Etzegintzako kostuek % 0,2 egin dute gora, eta Obra Zibilekoek, % 1,3. 2021eko urriarekin alderatuta, prezioak % 12,5 igo dira Obra Zibilaren kasuan eta % 9,3, Etzegintzaren kasuan.



Aurreko hilaren aldean, 2022ko irailaren aldean, **lehengaien** kostuek % 0,6 egin dute gora, eta **eskulanaren** kostuak egonkor dirau (% 0,0). Urte arteko terminoetan, lehengaien kostuak % 11,2 egin du gora, eta eskulanenak, % 5,8.

Lehengaien kostuak Etxegintzaren sektorean % 0,3 egin du gora, hilen artean, eta Obra Zibilarenean, % 1,7. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuek % 10,4 egin dute gora, eta Obra Zibilekoek, % 14,5.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Urria 2022

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	121,6	0,4	9,9
Erakintzak	120,7	0,2	9,3
Obra zibila	125,5	1,3	12,5
Lehengaiak	123,1	0,6	11,2
Erakintzak	122,0	0,3	10,4
Obra zibila	128,2	1,7	14,5
Laneskua	116,7	0,0	5,8

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Azaroaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitutako lehengaien prezioetan, 2022ko urrian, 2021eko urriarekin alderatuta, igoerarik handienak erregistratu dituztenak honako sektore hauetakoak izan dira: *Energia elektrikoa eta gasa* (% 47,4), *Petrolio-fintzea* (% 42,2) eta *Metalurgia* (% 30,5). Prezioetan honako sektore hauek izan dute hazkuntzarik moderatuena: *Material elektronikoa* (% 1,7 igoera) eta *Makinen fabrikazioa* (% 4,0ko igoera).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Urria 2022

	m / m-12
Ezmetalezko meak	5,4
Zuraren eta korboaren industria	23,9
Petrolioaren finitzea	42,2
Industria kimikoa	26,1
Kaubuxua eta plastikoa	6,7
Produktu mineral ez-metalezkoak	14,9
Metalgintza	30,5
Metalezko artikulak	12,2
Material elektronikoa	1,7
Material elektrikoa	5,1
Makineriaren fabrikazioa	4,0
Altzarigintza	8,0
Energia elektrikoa eta gasa	47,4

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Azaroaren 25a

Iturria: Eustat. Erakuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62